

IRRATIKO ALBISTEAK



Patxik irratia entzuten du goizero jaikitzean. Etxeko guztiei gustatzen zaie irratia entzutea.

Argiñe irratiko esatari ospetsuena da. Egunero oso goiz jeikitzen da, zortzi-zortzietan bere irratsaioari hasiera emateko. Irratsaioak “Argiñekin argitu” du izena.

Bere alaitasunari eta umore onari esker, ohetik jaikitzea hain nekeza(zaila) ez egitea lortzen du Argiñek.

- Jaun eta andreak, neskak eta mutilak, hau da egun zoragarria gaurkoa! Zabaldu leihoak eta begiratu kalerantz! Zer? Zure leihotik ez dela kalea ikusten? Bada, ez kezkatu, zerua toki guztietatik ikusten da eta...
Entzuleak agurtu eta gero, hiriko bertako albisteak ematen ditu Argiñek:
- Azkenean, suhiltzaileek udaletxe aurrean dagoen eraikineko sutea itzaltzea lortu dute. Lanak izan dituzte sute ikaragarria menderatzeko, baina, zorionez, ez da zauriturik egon.
- “Munduko Zirku Mundiala” iritsi da herrira. Asteburu honetan txiki eta nagusiok zirkua ikusteko aukera izango dugu.

Guztiori interesatzen zaizkigun albisteak emateaz gain, horiei buruzko9 iritzia eskatzen die Argiñek telefonoz herriko persona garrantzitsuenei. Eguna umore onez hastera animatzen gaitu eta herria hobetzearen alde lan egiteko eskatzen digu.



- **Irratiko zein programa entzuten du Patxik ohetik jaikitzean?**

- **Nor da Argiñe? Aukeratu erantzun zuzena:**

Irratiko esatari zaharrena.

Irratiko esatari ospetsuena.

Irratiko esatari gazteena.

- **Noiz jaikitzen da irratiko esataria?**

Zortziak baino lehen.

Zortzi-zortzietan.

Zortziak jo ondoren.

- **Zeri esker lortzen du Argiñek jemdeari ohetik jaikitzea hain zaila ez izatea?**

- **Nolako izaera du Argiñek?**

Alaia

Tristea

Ipurterrea

- **Zein da Argiñeren irratsaioaren hasierako atala?**

Entzuleen iritziak

Bertako albisteak

Lehiaketa

- **Non dago erre den eraikuntza?**

- Zer ikusi ahal izango du Patxik asteburu honetan?
- Nori eta nola eskatzen dio Argiñek bere iritziaren berri?
- Zer eskatzen du esatariak herriarentzat?